CURRICULUMEKO MEREZIMENDUEN BAREMAZIO ZEHAZTUA

(2. ERANSKINA)

1. MEREZIMENDU AKADEMIKOAK (7 PUNTU, GEHIENEZ).

- Espediente akademikoaren nota (3 puntu).
  - — Espedientearen batez besteko nota bider 0,2.
  - — Zenbakizko notarik ez badago, puntuazio hau emango da:
    - Nahikoa: puntu 1.
    - Oso ongi: 1,5 puntu.
    - Bikaina: 2 puntu.

- Masterra edo graduondokoa (puntu 1).
  - — Puntu bat emango da ikerketa sozial aplikatuari zuzenean lotutako graduondoko master edo ikastaro bat izanez gero.
  - — 0,5 puntu emango dira Gizarte Zientzietako graduondoko masterra edo ikastaroak izanez gero.

- Doktore titulua (3 puntu).
  - — Hiru puntu emango dira Soziologian edo Zientzia Politikoan doktore-titulua izanez gero.
  - — Gizarte Zientzietako doktore-titulua izanez gero, 2 puntu emango dira.
  - — Puntu 1 emango da beste zientzia-arlo batean doktore-titulua izanez gero.

2. IKERKETA-MEREZIMENDUAK (12 PUNTU, GEHIENEZ).

- Argitalpenak: aldizkari zientifikoak, liburuak, liburu-kapituluak, monografiak, dibulgaziozko argitalpenak. (3 puntu).
  - — 0,4 puntu indexatutako aldizkari zientifikoko argitalpen bakoitzeko.
  - — 0,3 puntu liburu bakoitzeko.
  - — 0,2 puntu liburuko kapitulu bakoitzeko.
  - — 0,1 dibulgaziozko argitalpen bakoitzeko.

- Ikerketa-proiektu eta -kontratuetan parte hartzea, ikertzaile nagusi edo parte-hartzaile gisa. (7 puntu).
  - — 0,10/Hilabete ikertzaile nagusi gisa ikerketa-proiektu lehiakorretan.
  - — 0,04/Hilabete ikerketa-proiektu lehiakorretan, ikertzaile gisa.
  - — 0,05/Hilabete ikertzaile nagusi gisa egindako ikerketa-kontratuetarako.
  - — 0,02/Hilabete ikertzaile gisa egindako ikerketa-kontratuetarako.

- Bestelakoak: kongresuetan hizlari gisa parte hartzea, komunikazioak, sariak lortzea, beste ikerketa-merezimendu batzuk (2 puntu).
  - — 0,2 gonbidatutako txosten bakoitzeko.
  - — 0,1 komunikazio bakoitzeko.
  - — Ikerketa-sariren bat (0,5).
  - — Ikerketako beste merezimendu batzuk (0,3).

3. LANBIDE-ESPERIENTZIA (6 PUNTU, GEHIENEZ).

- Esperientzia prestakuntza- eta/edo ikerketa-beketan (2 puntu).
  - — 0,01/Hilabete prestakuntza-, doktoretza aurreko edo ikerketa-beketan.
  - — 0,02/Hilabete doktoretza ondoko beketan.

- Gizarte-ikerketaren arloko lanbide-esperientzia (4 puntu).
  - — 0,05/Hilabete gizarte-ikerketarekin lotutako lanbide-esperientzian.
  - — 0,025/Hilabete gizarte-zientziei lotutako lanbide-esperientzian.